



**Langileak: aldi baterako ordezkapenak
ENPLEGU-GARAPEN TEKNIKARIA (LANERATZEA)**

OINARRIAK

**UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO ENPLEGU-GARAPEN (LANERATZEA)
TEKNIKARIAREN HUTSUNEA ALDI BATERAKO HORNIKUNTZA ETA HAUTAKETA**

1.- Kontratazioaren lege oinarria eta justifikazioa

Hautaketa-prozedurari dagokionez, bitarteko izaera duenez izendapenak, era arin eta azkar batean gauzatu behar da, 11/2022 legeak, 77.1 artikuluan, aurreikusi duenez, 2025eko Lanpostu zerrendan ageri den lanpostu hau bete gabe dago 2024ko azaro amaieraz geroztik eta hutsune hori bete beharra dago.

2.- Hautagaiek bete beharreko ezinbesteko baldintzak

- Administrazio publikoan lan egiteko baldintza orokorrak eskatuko dira.
- Ikasketak (2025eko Lanpostu zerrendaren arabera, GAO 2025-03-25):

500	Lizentziatura, ingeniari-tza, arkitektura, edo baliokidea.
535	Pedagogian lizentziatura edo baliokide den gradu titulua
536	Psikologian lizentziatura edo baliokide den gradu titulua

- Euskara: Lanpostuak 4. hizkuntz eskakizuna du (C2 egiaztagiria). Hala ere, prozesuan parte har daiteke C1 euskara mailaren egiaztagiria izanik ere. Nolanahi ere, lehentasuna dutenez C2koek, horiek izango dira proba praktikoa egingo dutenak. C2 mailako inor ez balego edota proba praktikoa inork gaindituko ez balu, kasu horretan ontzat emango litzateke C1 mailako hautagaia.
-
- Gutxienez urtebeteko lan eskarmentua izatea ondorengo gaietan:
 - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko orientazioko aplikatiboaren erabileran.
 - Enpleguarekin zerikusia duten programen kudeaketan (eskaera, koordinazioa eta zuriketak egiten).

3.- Bete beharreko lanpostuaren eta eskaintzaren ezaugarriak:

Lanpostua: Enplegu-garapen teknikaria (laneratzea).

Eskala: Administrazio Berezia

Sailkapen taldea: A2

Destino osagarria: 21

Osagarri espezifikoa: 1.383,92.-euro/hilero

Ordainsaria: 3.201,88.- euro/ hilero; urtero (14 ordainketa): 44.827,72.-euro

Ordutegia: astelehenetik ostiralera,7 ordu eta 7 ordu t'erdia artean; sarrera 7:30-9:00 bitartean eta irteera 15:00-16:30 malgutasunez.

Lanaldia: %100

Eskaintzen den izendapena: Bitarteko funtzionario

Iraupena: 2027ko martxoaren 14 arte, gutxienez.

Probaldia: hautatuak 3 hilabeteko probaldia gainditu beharko du (11/2022 legearen 77.2 artikuluari jarraiki), ezinbestekoa izanik eginkizunetara egokitzea parametro hauen arabera: egindako lanetan azaldutako eraginkortasun profesionala eta, bereziki, zerbitzuarekiko jarrera; arduradunekiko harremanak eta ardura; lankidetzak eta elkarlana; errendimendua eta erantzukizuna; egoerez jabetzea, emozio-oreka eta moldagarritasuna.

Horiek guztiak, 11/2022 legearen 76.7 artikulua ezarritako moduan, zehatz-mehatz deskribatu eta nabarmen behagarriak diren jokabideekin alderatuta balioetsiko ditu hautaketa-organo teknikoak.

4.- Eginkizun nagusiak:

Lehendakaritzaren 2024ko abenduaren 9ko B24/0169 Ebazpen bidez onartutakoak. Alegia, jarraian adierazitakoak.

LANPOSTUAREN HELBURU NAGUSIA

Eskualdeko herritarren ongizatea eta enplegagarritasuna areagotu; kalitatezko enplegua sustatu; talentua sortu, erakarri eta eutsi.

EMAITZA EDO EKARPEN NAGUSIAK

Herritarren arreta pertsonala eta aholkularitza.

Lan eskaintzen prospekzioa eta kudeaketa.

Egitasmoen prospekzio, diseinua eta kudeaketa.

Eskualdeko beharrei erantzuteko estrategien hausnarketan, diseinuan eta exekuzioan aritu.

Udal edo tokiko eremuan, eskualde-esparruan, Gipuzkoako Lurralde Historiko zein Euskadiko lurraldetan edota Europa mailan, garatzen diren proiektuetan partehatu.

FUNTZIOAK/ARDURAK

- Herritarren arreta pertsonalizatua:
 - Pertsonekin zuzeneko esku-hartzeak, eraldaketa prozesuetan, lan bilaketa edo aldaketarako. Lan helburua definitzetik lan bilaketarako erremintekin laguntzeraino (pertsonaren motibazioa, auto-estimua, alderdi emozional eta kognitiboak lantzen dira).

- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikari homologatu gisa, aholkularitza eskaini eta orientazioko aplikatiboa kudeatu.
- Enplegatze Agentzia: Lan eskaintzen prospekzioa eta kudeaketa, eskualdeko enpresen beharrei erantzuteko perfil egokiak bilatu eta bidali (eskaintzen difusioa, cv- en filtroa, enpresarekin harremana).
- Pertsonen enplegarritasuna eta ongizatea sustatzeko, kalitatezko enplegua eta talentua sustatzeko proiektuen diseinua, planifikazioa, kudeaketa eta zuriketa: eskaerak, proiektuak diseinatu, aurrekontuak kudeatu, adituen kontratazioak, exekuzioaren jarraipena, finantzaketa ematen duen erakundearekin harremanak izan, gorabeherak kudeatu, zuriketa, ...
- Enpresetan, pertsonen inplikazioa eta erakundearen errendimendua areagotzeko kultura egokiak lortzeko testuinguruak landu eta enpresa erakargarriak lortu.
 - Enpresen kaptazioa, sentsibilizazioa, zuzendaritzarekin eraldaketarako oinarriak landu
 - Beste eragile batzuekin elkarlanean, tresnen ko-sorkuntzan eta esperientziak partekatu
- Eskualderako estrategikoak izan daitezkeen ideien hausnarketa, proiektuen diseinua, planifikazioa, kudeaketa eta zuriketa.
- Enpleguaren estrategia eta ekimenak lantzeko kudeaketa.
- Eskualdeko beharrak kontuan hartuta, Europako diru-laguntzetan parte hartzeko lanketak kanpo adituen laguntzarekin:
 - Eskualdeko beharrei erantzungo dieten estrategien identifikazioa eta hausnarketa.
 - Europako diru-laguntzak lortzeko eskaera diseinua, partnerren prospekzioa, proiektu interesdunen bilaketa, kanpo adituarekin lanketa eta koordinaketa...
 - Europar programan barnean sozio gisa bitarteko ekimenean parte hartu (ekimenak landu, kudeaketa lanak, difusioa, jardunaldiak antolatu, sozioekin koordinazio bilerak, eskualdeko erakundeekin lanketak egin..)
- Eskualde- Lurralde mailako sareetan parte hartu / kudeatu.
- Zerbitzuari loturiko prozedura administratiboak eta izapideak:
 - Azpisaileko aurrekontuak eta ekintzen planifikazioa egin.
 - Enpresen esleipen prozesu administratiboa aurrera eraman.
 - Enpresen kontratazioetarako diru-laguntzen kudeaketa.
 - Praktika berrien etengabeko identifikazioa, proiektu berrien hausnarketara eta diseinurako
 - Tramitazioen jarraipena, erregistro dokumentuen kontrola, espedienteen banakako jarraipena.
 - Txosten teknikoen prestaketa; aktak, ...

Orokorrak

- Zerbitzua eta lan-prozesuak etengabe hobetzen lagundu.
- Bere eginkizunak direla eta, beharrezko diren lan bilera, jardunaldi, ikastaro, mintegi eta antzekoetara joan.
- Lehenago deskribatutako eginkizunez gainera, bere gaitasun eta ahalmen profesionalen arabera, ezarritako helburuak betetzeko egokitzen zaizkion bestelako eginkizunak gauzatu.

5.- Hautaketa prozedura

5.1.- Legezko oinarriak eta baldintzak

11/2022 legearen 77.1 artikulua jasotako printzipio hauek bermatuko dira hautaketa honetan: berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna, publikotasuna eta lehia askea.

11/2022 legearen 79.2 artikuluari jarraituz honakoak bete dira hautaketa hau bideratzeko:

- a) Hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna, independentzia eta diskrezionalitate teknikoa.
- b) Hizkuntza eskakizuna
- c) Izangaien gaitasuna eta egokitasuna neurtzeko tresnen pertinentzia.
- d) Hautaketa-prozesuetako edukien eta deitutako plazetan bete beharreko zereginen arteko adostasuna.
- e) Hautaketa-prozesuen bizkortasuna
- f) Hautaketa-prozesuan hizkuntza ofizialetatik edozein erabili ahal izateko bermea.
- g) Enplegu publikora iristeko berdintasun-printzipioa.
- h) Gainerako izangaiek dituzten baldintza beretan parte hartzea desgaitasunen bat duten pertsonen.

11/2022 legearen 77.5 artikuluari helduz, LANBIDE- Euskal enplegu zerbitzuan argitaratuko da lan eskaintza honen iragarkia.

Baldintzak betetzen dituen pertsona orok izen eman dezake eskaintza honetan, LANBIDE bidez. Horretarako, honako dokumentazioa aurkeztu beharko du: LANBIDEren CV (NAN, titulazioa, euskararen ziurtagiria, eta lan esperientzia egiaztatzen dituen).

5.2.-Hautaketa metodoa:

11/2022 legearen 80.2 artikuluko a), h) eta k) atalak aintzat izanik burutuko da hautaketa.

Lehenik, idatzizko proba praktiko bat burutuko dute hautagaiak lanpostuaren eginkizunetan oinarrituta eta eskualdeko enplegu-politiken testuinguruan kokatuta. Proba honek helburu du hautagaiaren gaitasun teknikoa, analisi- eta proposamen-gaitasuna, eta planifikazio estrategikorako ikuspegia ebaluatzea. 50 minutuko iraupena izango du gehienez.

Bigarrenik, ahozko proba edo elkarrizketa bat egingo dute hautagaiak. Grabatua izango da. 20 minutuko iraupena izango du gehienez. Hautagaiak idatzizko proban landutakoa defendatu beharko du. Ahozko proba hau euskaraz erantzun edo azaldu beharko dute hautagaiak,

Hautaketa-organo teknikoak, argibideak eskatzeko edota zalantzak argitzeko galderak euskaraz egingo ditu.



Elkarrizketa egiteko eguna eta ordua emailaz jakinaraziko zaie, baldintzak betetzen dituzten hautagaiei.

Hirugarrenik, lan esperientzia eta lanpostuaren zereginekin lotura duten arloan egindako 300 ordutik gorako ikastaroak baloratuko dira. Lanbide Euskal-Enplegu Zerbitzuko curriculum hartuko da kontuan (ez besterik). Bertan islatzen ez dena ez da kontuan hartuko. Norbaitek datuak eguneratu nahiko balitu, aukera izango luke Udal Elkartean bertan eguneratzeko. Horretarako, aldeztatik hitzordua hartuz, eta betiere eskaintza hau Lanbide-Euskal Enplegu zerbitzuan argitaratuta dagoen epealdian.

5.3.-Balorazio-irizpideak (100 puntu, gehienez).

5.3.1.- Idatzizko probak 30 puntuko balioa izango du. Hautagaiaren gaitasun teknikoa, analisi- eta proposamen-gaitasuna, eta planifikazio estrategikorako ikuspegia modu honetara baloratuko da:

- Edukiaren egokitasuna eta koherentzia. Gehienez 10 puntu
- Proiektuaren egituraketa eta argitasuna. Gehienez 10 puntu
- Aukeratutako metodologiaren egokitasuna. Gehienez 10 puntu

5.3.2.- Ahozko probak 40 puntuko balioa izango du. Hautagaiak idatzizko proban landutakoa defendatu beharko du. Modu honetara baloratuko da:

- Ahozko defentsaren argitasuna eta gaitasun komunikatiboa. Gehienez 40 puntu

Aurreko bi probak gainditzeko gutxienez 35 puntu eskuratu beharko dira. Gutxieneko horretara iristen ez den hautagaia, prozesutik kanpo geratuko da.

5.3.3.- Merezimenduek 30 puntuko balioa izango dute.

Lanbide Euskal-Enplegu Zerbitzuko curriculum hartuko da kontuan (ez besterik). Bertan islatzen ez dena ez da kontuan hartuko. Norbaitek datuak eguneratu nahiko balitu, aukera izango luke Udal Elkartean bertan eguneratzeko. Horretarako, aldeztatik hitzordua hartuz, eta betiere eskaintza hau Lanbide-Euskal Enplegu zerbitzuan argitaratuta dagoen epealdian.

Hautagaiak bete beharreko ezinbesteko baldintzetan eskatzen denaz haratagoko merezimenduak dira baloragarri:

A.-Lan eskarmentua (20 puntu)

- Orientazioko ekintzetan, urte bakoitzeko 1 puntu. Gehienez 5 puntu
- Enpleguarekin zerikusia duten programen kudeaketan (eskaera, koordinazioa eta zuriaketak egiten) Urte bakoitzeko 1 puntu. Gehienez 5 puntu

- Talde dinamizazioetan eskarmentua. Urte bakoitzeko 1 puntu. Gehienez 5 puntu
- Pertsonen garapen prozesuetarako talde prestakuntza ematen. Urte bakoitzeko 1 puntu. Gehienez 5 puntu

B.- Prestakuntza (10 puntu).

Arloarekin zerikusia duten prestakuntzak kontuan hartuko dira, betiere 300 orduetik gorakoak badira. Prestakuntza bakoitzeko 5 puntu. Gehienez 10 puntu

5.4.-Hautaketa-mahai edo organo teknikoa

Elkarrizketan parte hartuko dute, Udal Elkarteko enplegu-garapen zerbitzuko buruak edota honen ordeko teknikari batek, enplegu-garapen (laneratze) teknikariak eta Udal Elkarteko Idazkari-kontuhartzaileak,.

11/2022 legearen 81.10 artikulua araber, epaimahaiaren edo hautaketa-organo teknikoaren erabakia loteslea izango da izendapenak egiteko eskumena duen organoarentzat, hots, Urola Kostako Udal Elkarteko Lehendakariarentzat.

5.5.-Emaitzak: hurrenkera eta lan-poltsa

Aurkeztutako hautagaien artean, hurrenkera bat jarriko da eta lan-poltsa bat eratuko da, enplegu-garapen (laneratze) gaietan lanak egiteko, interesa azal dezaketen beste enpresa edota Administrazio publikoentzat eskuragai egongo dena, hautagaiak horretarako berariaz baimena emanaz gero.

5.6.- Gutxi gora-beherako egutegia:

- Izen emateko epea: 7 lan egun, LANBIDEn iragarkia jarriz geroztik,
- Izen emateko modua: LANBIDE bidez
- Elkarrizketa egiteko epea: maiatzaren azken astean / ekainaren lehen hamabostaldian zehar. Baldintzak bete dituen hautagai bakoitzari egun eta ordu zehatz baterako deialdia egingo zaio.
- Emaitzak argitaratzeko epea: ekainaren bigarren hamabostaldian zehar.
- Emaitzak argitaratzeko modua: Urola Kostako Udal Elkartearen web orrian.

Sinatzailea Firmante	UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO LEHENDAKARIA Ion Arozena Eizagirre PRESIDENTE DE LA MANCOMUNIDAD DE UROLA KOSTA
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA4NAEB.vcHu
<p>Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu / <i>Este documento se ha firmado electrónicamente, para verificar la validez de este documento acceda a la WEB o lea la imagen QR</i></p>	
	